قافلة سينما المرأة العربية واللاتينية الرابعة

# EMAKUMEZKOEK EGINDAKO ZINEMA ARABIARREN 4. KARABANA

ZINEGILEEN ARTEAN ENTRE CINEASTAS



# 4ª CARAVANA DE CINE ÁRABE REALIZADO POR MUJERES

**1 - 5 2015**
**EKAINA JUNIO**

**SARRERA ENTRADA 3 €**

CINE INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL FILM SOZIALAK 2015 BILBAO
KCD
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
klaketa árabe
CINE RIZADAS
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
golem alhóndiga

# “ENTRE CINEASTAS” 4º CARAVANA DE CINE ÁRABE REALIZADO POR MUJERES

**Fecha:** Del 1 al 5 de junio
**Lugar:** Cines Golem Zinemak, Centro Azkuna Zentroa
**Sesiones:** 17:00 h.,19:45 h., 22:15 h.
**Precio:** Alumnado del 6º Encuentro, incluido en la matrícula, resto de público 3 €.

La inquietud por enlazar mundos e impulsar iniciativas relacionadas con la Comunicación para el Desarrollo en diversas partes del mundo, nos llevó hace ya 4 años a crear una alianza de colaboración entre **Kultura Communication y Desarrollo “KCD” ONGD** y el **Festival Internacional de Cine realizado por Mujeres de El Cairo, Egipto**.

La Caravana de **Cine árabe realizado por Mujeres “Entre Cineastas”** forma parte de esta mágica alianza y ha acampado para esta edición en lugares tan dispares como El Cairo (Egipto), Managua (Nicaragua), Oaxaca (México), y Bilbao.

Pero la caravana no solo viaja con buenas historias contadas por mujeres, sino que también cuenta con el **taller itinerante “Mujeres en Correspondencia”** cuyo objetivo es el empoderamiento de mujeres en herramientas audiovisuales y que en esta ocasión se realizará en **La Casa de la Mujer de Ermua**.

El taller se imparte a través de la organización Entre Cineastas y la productora egipcia Klaketa Árabe en colaboración con Drac Magic (Catalunya) y la Coordinadora de Muestras y Festivales de Cine, Vídeo y Multimedia realizado por Mujeres ‘Red TRAMA’.

# PROGRAMACIÓN

## LUNES 1 — 17:00 h. / 19:45 h. / 22:15 h.

**19:45 h. Sesión con invitación.**
***Presentada por KCD ONGD y Nassima Guessoum, directora argelina.***
***Con servicio de interpretación de lengua de signos.***
Telf. 946 024 668 / info@kcd-ongd.org)

### *10.949 Women (10.949 Mujeres)*

**Directora:** Nassima Guessoum
Argelia / Francia, 2014, 75 min.

**Idioma:** Francés / Árabe con subtítulos en castellano e inglés.
*Festival de Cine Árabe de Fameck, Francia, 2014; Festival Internacional de Cine de Mujeres de El Cairo, Egipto, 2014; 4ºFIDEL Festival para la igualdad y diversidad de Paris 2014; Premio al Mejor Documental del Festival de Cine de Algeria, 2014.*

**Sinopsis:** En Argel nos encontramos con Nassima, una heroína olvidada de la revolución argelina, que nos cuenta la historia de las mujeres en la guerra, de la lucha por una Argelia independiente. La cineasta visita a Nassima todos los años, y a través de sus recuerdos, Guessoum reconstruye una parte de su propia historia y empieza a entender la Argelia de hoy a través del pasado. 10.949 mujeres no es solo una historia sobre las mujeres, sino que también trata de responder preguntas vitales: ¿Qué es la libertad, y cuál es el precio que hay que pagar para conseguirla?

## MARTES 2 — 17:00 h. / 19:45 h. / 22:15 h.

### *My Love Awaits Me by the Sea (Mi amor me espera junto al mar)*

**Directora:** Mais Darwazah
Jordania / Alemania / Palestina / Qatar, 2013, 80 min.

**Idioma:** Árabe con subtítulos en castellano.
*Mejor Documental del Festival de nuevos Directores 2014; Mejor Documental del Festival Internacional de Cine de Dubai*

*2013; Premio CPH:DOX 2013; Selección Oficial del Festival Internacional de Cine de Toronto 2013.*

**Sinopsis:** Un poético documental sobre el primer viaje de vuelta de la directora a su tierra natal, Palestina. Deja su solitaria realidad y conoce a su amante, Hassan, un artista palestino que la ayuda a descubrir un hermoso y utópico mundo. Cuentos de hadas y realidad se mezclan para hacernos reflexionar sobre los lugares imaginarios y la necesidad de creer en los sueños.

## MIÉRCOLES 3 17:00 h. / 19:45 h. / 22:15 h.

***Cortometrajes de los talleres Mujeres en Correspondencia,*** *realizados en Mungia (Bizkaia), El Cairo (Egipto), Managua (Nicaragua) y Oaxaca (México)*

### *Keshtben*

**Directora:** Manar Saad
Líbano, 2013,16 min.

**Idioma:** Árabe con subtítulos en castellano e inglés.
*Selección oficial del Festival Internacional de Cine Amateur de Kélibia - FIFAK 2014; Selección Oficial de cortometrajes árabes del Festival Internacional de Cine de Mujeres de El Cairo 2014; Selección Oficial del Festival Internacional de Cine de Estudiantes de Písek (Rep. Checa) 2013.*

**Sinopsis:** Un documental familiar que sigue a la cineasta mientras visita a sus tías, Wafika y Zahra, que van a coser su vestido de novia antes de casarse. Zahra sólo estuvo casada durante 9 meses, mientras que Wafika nunca se ha casado. A medida que cosen el vestido, y hablan de sus propias vidas, repasan el pasado y miran hacia el futuro, con o sin matrimonio.

### *The Dinner (La Cena)*

**Directora:** Mais Darwazah
Francia / Palestina / Emiratos Árabes Unidos, 2012, 20 min.

**Idioma:** Árabe con subtítulos en castellano e inglés.
*Mención especial en el Festival de Cine mediterráneo de Montpellier (Francia) 2013; Selección Oficial del Festival de Cine*

*y Arte documental Palestino de Washinton 2013; Selección Oficial del Festival de Cine Palestino de Boston 2013; Selección Oficial de la 23a Muestra Internacional de Cine de Mujeres de Barcelona 2013.*

**Sinopsis:** Mais Darwazeh vive sola. En Ammán, una ciudad de personas desarraigadas, crea su propia identidad reuniendo alrededor de su mesa a amistades cercanas, ingredientes selectos y antiguas recetas.

***Wooden Hand (Mano de Madera)***

**Directora:** Kaouther Ben H'nia
Francia / Túnez, 2013, 23 min.

**Idioma:** Árabe con subtítulos en castellano e inglés.
*Festival Mediterráneo de Cortometrajes de Tanger (Marruecos) 2013; CINEMED Festival Mediterráneo de Cortometrajes de Montpellier (Francia) 2013; Festival Internacional de Cortometrajes COURTS DEVANT de Paris (Francia) 2013; Festival de cine Magrebí de Algeria 2013; Festival Menar de Sofia (Bulgaria) 2013; Selección Oficial en el Festival Internacional de Cine Africano de Nueva York 2013.*

**Sinopsis:** Amira, de 5 años de edad, vive con su madre en un pequeño apartamento en Túnez. A fin de evitar ir a la escuela coránica, idea un plan: nada mejor que pegarse la mano a la silla con pegamento ….

## JUEVES 4 — 17:00 h. / 19:45 h. / 22:15 h.

**19:45 h. Sesión presentada por la directora Maryse Gharghour.**
**Con servicio de interpretación de lengua de signos.**

***Encounter with a Lost Land (Encuentro con la tierra perdida)***

**Directora:** Maryse Gharghour
Palestina / Líbano, 2013, 62 min.

**Idioma:** Francés con subtítulos en castellano e inglés.
*Selección Oficial del Festival Internacional de Cine de Nyon 2013; Selección Oficial del Festival de Cine Palestino de Boston*

*2013; Pop-Up Film Festival - Reel Palestina2015.*

**Sinopsis:** Patrice Boureauis era el principal director del Hospital francés en Jaffa, desde 1930 hasta la década de 1950. La cineasta Maryse Gargour nos presenta a sus hijos, así como los de Lucien Champenois, un médico francés que dirige un hospital de Belén en la década de 1930. A través de estas historias conoceremos a cuatro generaciones de familias francesas en Palestina, así como la dinámica diaria en estas ciudades, de las más antiguas del mundo.

## VIERNES 5 — 17:00 h. / 19:45 h. / 22:15 h.

**19:45 h. Sesión presentada por la directora Amal Ramsis. Con servicio de interpretación de lengua de signos.**

***The trace of the butterfly (La estela de la mariposa)***

**Directora:** Amal Ramsis
Egipto / Francia / Turquía / País Vasco, 2014, 67 min.

**Idioma:** Árabe con subtítulos en castellano.
*Selección Oficial del 34º Festival Internacional de Cine de Estambul 2015.*

**Sinopsis:** Entre los muertos en la masacre de Maspero en 2011 en Cairo estaba Mina Daniel, un cristiano copto egipcio conocido como el "Che Guevara de la revolución egipcia". Su hermana María nos lleva a recorrer dos años de la revolución; dos años de frustración y triunfo, muerte, y el vacío por la ausencia de quienes se han ido. Ésta es la historia de aquellas personas que pasaron por nuestras vidas y solo después de que se hayan ido entendemos cuánto nos han cambiado.

# “ZINEMAGILE ARTEAN”, KAIROKO -EGIPTO- EMAKUMEZKOEK EGINDAKO ZINEMAREN 4. KARABANA.

**Data:** ekainaren 1etik 5era bitartean.
**Tokia:** Golem Zinemetan, Azkuna Zentroa
**Ordutegia:** 17:00etan, 19:45ean eta 22:15ean.
**Prezioa:** Kultura, Komunikazioa eta Garapenerako 6. Nazioarteko Topaketaren ikasleentzat matrikula-prezioaren barruan sartuta. Gainontzeko ikusleentzat, 3na euro.

Munduan barrena Garapenerako Komunikazioarekin erlazionatutako ekimenak bultzatu eta gizarteak lotzeko beharrak akuilatuta, orain 4 urte sortu genuen **Kultura, Communication y Desarrollo “KCD” GGK**Earen eta **Kairoko Emakumezkoek egindako Zinemaren Nazioarteko Jaialdia**ren arteko lankidetza-hitzarmena.

**“Entre Cineastas”, emakumezkoek egindako zinema arabiarraren karabana** itun horren parte da, eta honakoan Kairo (Egipto), Managua (Nikaragua), Oaxaka (Mexiko) eta Bilbon izan du egoitza.

Hala ere, karabanak ez ditu soilik emakumezkoek kontaturiko istorio onak garraiatzen, baizik eta baita **“Mujeres en Correspondencia” tailerra** ere. Tailer horrek emakumezkoak ikus-entzunezko tresnetan ahalduntzea du xede, eta honako karabana **Ermuako Emakumearen Topagunea**n egingo da.

Tailerra “Entre Cineastas” elkarteak eta Egiptoko Klaketa Arabe ekoiztetxeak emango dute, Kataluniako Drac Magic eta “Red Trama” emakumezkoek eginiko zinema, bideo eta multimedia jaialdi eta erakustaldien koordinakundearen lankidetzaz.

# EGITARAUA

## ASTELEHENA, hilak 1 — 17:00 / 19:45 / 22:15

**19:45ean: Gonbidatuentzako saioa. KCD-GGKEk eta Nassima Guessoum, Aljeriako film zuzendariak aurkeztuta. Zeinu hizkuntzako interprete zerbitzuarekin.**
Telef. 94 602 46 68 / info@kcd-ongd.org

### *10.949 Women (10.949 emakume)*

**Zuzendaria:** Nassima Guessoum
Aljeria / Frantzia, 2014, 75 min.

**Hizkuntza:** Frantsesa eta arabiera, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzia.
*Fameckeko Zinema Arabiarraren Jaialdia, Frantzia, 2014; Kairoko Emakumezkoen Nazioarteko Zinema Jaialdia, Egipto, 2014; 4. FIDEL Parisko Berdintasunerako eta Aniztasunerako Jaialdia, Frantzia, 2014; Aljeriako Zinema Jaialdian dokumental onenaren saria, 2014.*

**Sinopsia:** Aljeren Nassima aurkitzen dugu, bertoko iraultzaren heroi ahaztua, eta hark emakumeek gudan egindako borroka kontatzen digu, Aljeria independentearen alde egindakoa. Zinegileak urtero bisitatu du Nassima eta, haren oroimenen bitartez, Guessoumek bere historia berreraikitzen du hein batean, eta egungo Aljeria ulertzen hasten da, iraganetik abiatuta. 10.949 emakume, emakumeei buruzko istorioa kontatu ez ezik, berebiziko garrantzia duten galderak erantzuten ere saiatzen da: Zer da askatasuna eta zenbatekoa da berau lortzeko ordaindu beharrekoa?

## ASTEARTEA, hilak 2 — 17:00 / 19:45 / 22:15

### *My Love awaits me by the sea (Itsasertzean itxaroten dit nire kutunak)*

**Zuzendaria:** Mais Darwazah
Jordania / Alemania / Palestina / Qatar, 2013, 80 min.

**Hizkuntza:** Arabiera, gaztelaniaz azpidatzia.
*Zuzendari Berrien Jaialdian dokumental onenaren saria, 2014; Dubaiko Zinema Jaialdian dokumental onenaren saria, 2013;*

*CPH:DOX saria, 2013; Torontoko Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua, 2013.*

**Sinopsia:** Zuzendariak haren jaioterrira, Palestinara, eginiko itzulera jorratzen du dokumental poetiko honek. Egunerokotasun bakartia utzi eta maitalea ezagutzen du, Hassan, artista palestinarra, errealitate eder bezain utopikoaz jabetzen laguntzen diona. Maitagarrien ipuinak eta errealitatea nahastu egiten dira, balizko tokiez eta ametsetan sinesteko beharraz hausnar dezagun.

## ASTEAZKENA, hilak 3 — 17:00 / 19:45 / 22:15

***Mungiako (Bizkaia), Kairoko (Egipto), Managuako (Nikaragua) eta Oaxakako (Mexiko) emakumeen posta-truke tailerretako film laburrak***

### *Keshtben*

**Zuzendaria:** Manar Saad
Libano, 2013,16 min.

**Hizkuntza:** Arabiera, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzia.
*Kelibiako Zinema Amateurraren Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua – FIFAK 2014; Kairoko Emakumezkoen Zinema Jaialdian film laburren sail ofizialean hautatua; Pisekeko Ikasleen Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua, Txekiar Errepublika, 2013.*

**Sinopsia:** Familiari buruzko dokumentala. Zinemagileak bisitaldia egiten die haren izeba Wafika eta Zahrari, haiek ezkontzarako jantzia jos diezaioten. Zahra 9 hilabetez baino ez zen ezkonduta egon, eta Wafka ez da sekula ezkondu. Jantzia josi ahala, haien bizitzak zein iragana birpasatu eta, ezkontza gorabehera, etorkizunari begiratzen diote.

### *The Dinner (Afaria)*

**Zuzendaria:** Mais Darwazah
Frantzia / Palestina / Arabiar Emirerri Batuak, 2012, 20 min.

**Hizkuntza:** Arabiera, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzia.
*Montpellierreko Zinema mediterranearraren Jaialdian ohorezko aipamena, Frantzia, 2013; Washintongo Zinema eta Arte Palestinarraren Jaialdian sail ofizialean hautatua, AEB, 2013; Bostongo*

*Zinema Palestinarraren Jaialdian sail ofizialean hautatua, AEB, 2013; Bartzelonako 23. Emakumezko Zinemaren Erakustaldian sail ofizialean hautatua.*

**Sinopsia:** Mais Darwazeh bakarrik bizi da. Ammanen, jende deserrotuz betetako herrian, haren nortasuna eraiki egiten du, mahaiaren bueltan gertuko lagunak, osagarri bereziak eta errezeta zaharrak bilduta.

### *Wooden Hand (Egurrezko eskua)*

**Zuzendaria:** Kaouther Ben H'nia
Frantzia / Tunisia, 2013, 23 min.

**Hizkuntza:** Arabiera, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzia.
*Tangerreko Mediterraneoko Film Labur Jaialdian, Maroko, 2013; CINEMED, Montpellierreko Mediterraneoko Zinemaren Film Labur Jaialdian, Frantzia, 2013; Aljeriako Magrebeko Zinema Jaialdia, 2013; New Yorkeko Zinema Afrikarraren Nazioarteko Jaialdia, AEB, 2013.*

**Sinopsia:** Almira, bost urteko haurra, amarekin bizi da Tunisiako apartamentu txikian. Eskola koranikora ez joateko plan bat osatzen du: eskua, itsasgarriz, aulkira itsastea.

## OSTEGUNA, hilak 4 — 17:00 / 19:45 / 22:15

**19:45ean Maryse Gharghour zuzendariak aurkeztutako saioa. Zeinu hizkuntzako interprete zerbitzuarekin.**

### *Encounter with a Lost Land (Galdutako lurraldearen bila)*

**Zuzendaria:** Maryse Gharghour
Palestina / Libano, 2013, 62 min.

**Hizkuntza:** Frantsesa, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzia.
*Nyongo Nazioarteko Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua; Bostongo Zinema Palestinarraren Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua; Pop-Up Film Festival – Reel Palestina 2015.*

**Sinopsia:** Patrice Boureauis Jaffako ospitale frantseseko zuzendari nagusia izan zen, 1930ean hasi eta 50eko hamarkadara arte. Maryse Gharghour zinemagileak seme-alabak aurkezten dizkigu, baita Lucien Champenoisenak ere, Belengo ospitalea 30eko hamarkadan zuzendu zuen mediku frantsesarenak. Isto-

rio horien bitartez, Palestinan bizi diren familia frantses hauen lau belaunaldi ezagutuko ditugu, baita munduko zaharrenetarikoak diren hiri horien egunerokotasuna ere.

## OSTIRALA, hilak 5 — 17:00 / 19:45 / 22:15

**19:45ean Amal Ramsis zuzendariak aurkeztutako saioa. Zeinu hizkuntzako interprete zerbitzuarekin.**

***The trace of the butterfly (Tximeletaren arrastoa)***

**Zuzendaria:** Amal Ramsis
Egipto / Frantzia / Turkia / Euskal Herria, 2014, 67 min.

**Hizkuntza:** Arabiera, gaztelaniaz azpidatzia.
*Istanbulgo 34. Nazioarteko Zinema Jaialdian sail ofizialean hautatua, Turkia, 2015.*

**Sinopsia:** Mina Daniel izan zen, Kairon, 2011n gertaturiko Masperoko sarraskian hildakoetako bat, “Egiptoko iraultzako Che Guevara” zeritzoten kristau koptoa. Haren arreba Mariarekin iraultzaren bi urte birpasatuko ditugu, etsipen eta garaipenez, heriotzaz eta joandakoek utzitako hutsuneez osaturiko urteak. Gure bizitzaren parte izan diren lagunen istorioa da, eta haiek joandakoan soilik jabetzen gara zelan aldarazi gaituzten.



WWW.KCD-ONGD.ORG

INFO@KCD-ONGD.ORG

TELF: 94 602 46 68

CINE INVISIBLE 7
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2015 BILBAO
www.kcd-ongd.org

KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZERO POBREZIA
www.pobrezacero.org

Klaketa arabe
كلاكيت عربي

CINE RIZADAS

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

golem alhóndiga

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea